

UPV/EHUren GIPUZKOAKO CAMPUSEKO KIROL-INSTALAZIOEN ERABILPENERAKO ARAUDIA

1. Artikulua – Aplikazio eremua

Araudi hau Donostiako Ondarreta pasealekuaren 22 zenbakian kokatuta dauden Gipuzkoako Campuseko UPV/EHUren kirol-instalazio guztietan aplikagarria izango da.

2. Artikulua – Baimendutako erabilerak

Eraiki ziren hartarako erabili ahal izango dira instalazioak. Beste jarduera mota bat egin nahi izatekotan, UPV/EHUren baimena beharko da.

3. Artikulua – Zer publikori zuzentzen zaion haien erabilera

Gipuzkoako Campuseko kirol-instalazioen erabilera UPV/EHUko unibertsitateko kideei zuzenduta dago batik bat, baina jendearentzat oro har ere irekita dago.

UPV/EHUko unibertsitateko kideek dagokion agiria erakutsi beharko dute, euren izaera eta egoera bermatzeko. Bestela, ezin izango dute dagozkien abantailez gozatu.

Lehentasunezko erabiltzaileak, unibertsitateko kideak izango dira. Hortaz, haien aldeko eskubidea egongo da prezioetan eta kirol-instalazioen erreserban gainerako erabiltzaileen aldean, ordutegi jakin batzuetan.

4. Artikulua – Pisten erreserba

Pisten erreserba, honako modu hauetara egin daiteke:

- i. Telefonoz
- ii. Emailaz
- iii. Bertaratuta
- iv. Internetez

4.1. Pisten erreserba astelehenetik ostiralera eskolaldian:

UPV/EHUko unibertsitateko kideek kirol-instalazioen lehentasunezko erabilera izango dute 8:30tik 16:00 orduetara eskolaldian (hots, irailaren 1etik ekainaren 30era), astelehenetik ostiralera.

UPV/EHUko unibertsitateko kideek, astebete arteko aurrerapenez egin dezakete pista erreserba ordutegi horietarako; gainerako erabiltzaileek, aldiz, gehienez bi eguneko aurrerapenez egin dezakete erreserba.

16:00etatik 22:30 orduak arte, aldi horretan bertan astelehenetik ostiralera, unibertsitateko kideek, gehienez bi eguneko aurrerapenarekin egin dezakete pista erreserba ordu horietarako; gainerako erabiltzaileek, berriz, astebete arteko aurrerapenez egin dezakete erreserba, ordutegi honetarako.

16:00etatik 22:30 orduak arte, eskolaldian, astelehenetik ostiralera unibertsitateko kide EZ den norbaitek bi egun baino gehiagoko aurrerapenarekin pista erreserbatu, eta unibertsitateko kideak jolastera etorriko balira, hauxe izango da prozedura:

1. Azkenean, 4 jokalaria unibertsitateko kideak balira, jokalaria bakoitzak unibertsitateaz kanpoko tarifa ordainduko luke (ikus I. eranskina).
2. Azkenean, unibertsitateko kideak 3 jokalaria balira, jokalaria bakoitzak unibertsitateaz kanpoko tarifa ordainduko luke (ikus I. eranskina).
3. Azkenean, unibertsitateko kideak 2 ala 1 jokalaria balira, jokalaria bakoitzak bere ordutegiari dagokion tarifa ordainduko luke, (ikus I. eranskina), alegia, unibertsitateko kideen kasuan, 1€ orduko jokalariko, I. eranskinean adierazten den eskolaldirako.

16:00etatik 22:30 orduak arte astelehenetik ostiralera pista erreserba 2 egun baino gehiagoko aurrerapenez erreserbatu ahal izateko, erreserba hori unibertsitate kidea Ez den pertsona batek egin beharko du.

4.2 Pisten erreserba eskolalditik kanpo, asteburuetan eta jai egunetan.

UPV/EHUko kideek eta baita kide ez direnek ere, eskolalditik kanpoko egunetarako, asteburuetarako eta jai egunetarako erreserbak edozein ordutarako egin ahal izango dituzte, gehienez astebeteko aurrerapenez.

Unibertsitateko kideek, I. eranskinean adierazten den eskolalditik kanporako, asteburuetarako eta jai egunetarako tarifa ordainduko dute.

5. Artikulua – Funtzionamendu ordutegia

Kirol instalazioen ordutegia berdina izango da urte guztian zehar. Astelehenetik ostiralera 8:30tik 22:30 orduetara etenik gabe zabalik egongo dira. Asteburuetan eta jai egunetan, ordutegia, 8:30tik 21:30 orduetara izango da.

6. Artikulua – Tarifak

Pisten erreserba egiteko tarifak araudi honen I. eranskinean biltzen dira, eta berauek begi-bistan egon beharko dute Campusaren kirol instalazioetan.

7. Artikulua – Pisten erabilpena eta kobrantza

Pistetara joan aurretik,

1. Ezinbestekoa da kontrol gunetik pasatzea, pistara sartzekoak zaretela esateko.
2. Pista erabili aurretik alokairua ordainduko da.
3. Erreserba 24 ordu baino gutxiagoko aurrerapenez ezeztatzen alokairua osorik kobratuko zaio. Behin eta berriz erreserba ezeztapenaren berri ematen ez bada, pistak aurretiaz alokatzeko eskubidea behin behinerako ala behin betirako galdu daiteke.
4. Padel pista bat erreserbatu, eta azkenean 4 jokalaria baino gutxiagok erabiliko balute, pista osoa kobratuko zaie. Pista aurreko erreserbarik gabe alokatzen bada, parte proportzionala soilik kobratuko zaie.
5. Erabilera anitzeko pista aurrez erreserbatu eta azkenean 10 jokalaria baino gutxiagok jokatu balute, pista osoa kobratuko zaie. Pista aurreko erreserbarik gabe alokatzen bada, parte proportzionala soilik kobratuko zaie.

8. Artikulua – Aldagelak

1. Derrigorrezkoa da arropak errotazio-armairuetan gordetzea.

Errotazio-armairuaren giltza eskuratzeko, aurretik NANA harreran utzi beharko da.

Derrigorrezkoa da, behin erabili ondoren, errotazio-armairuak libre uztea; bestela, garbiketa langileek hustuko dituzte eguna amaitzean.

2. Instalazioan lapurretaren bat gertatuz gero, armairu barruan bada ere, ez UPV/EHU ezta enpresa kudeatzailea ere, ez da arduradun izango. Mantenuaren eta higienezaren kontuengatik, bizarra mozten duenak konketa txukun utzi beharko du.
3. Aldagela ahalik eta garbien mantentze aldera, dutxa-gunean lehortzea eskatzen zaie erabiltzaileei.
4. Kontrol gunean alokatutako eskuoihalak, hor bertan dagoen saskian utzi behar dira. Eskuoihala alokatzeko, NANA utzi eta dagokion ordainketa egin beharko da (1,50 €).

9. Artikulua – Arau orokorrak

1. Pistetara sartzeko jantziak kiroletako arropa eta oinetakoak izango dira, eta hauek, beti ere, egokiak izan beharko dute jarduera zehatzerako eta jokatu den zoruerarako.
2. Jatea, erretzea edo edariak instalazio barnean sartzea ez da baimentzen.
3. Debekatuta dago pertsona bat garraiatzeko edozein motatako gurgildun ibilgailua (patinak, patineteak, monopatinak etabar...) pistetara sartzea, baita instalazioan zehar bizikletan eta motordun ibilgailuetan ibiltzea ere.
4. Txakurrak edo beste animalia batzuk ekartzea debekatuta dago.
5. Ez da onartuko gainerako erabiltzaileen lasaitasuna eta erosotasuna asaldatu dezakeen ekintza ala jarduerarik (jolas biolentoak, musika-aparatuak erabiltzea, etabar). Jarrera egokia mantendu beharko da beti, bai instalazioarekiko, bai gainerako erabiltzaileekiko eta baita instalazioaren ondoko bizilagunekiko ere.
6. Ez dira onartuko, kirol-guneen zorua eta oro har instalazioaren hondatzea ekar lezaketan jarduerak.
7. Erabiltzaileak instalazioa txukun mantentzeaz arduratuko dira. Horretarako gune ezberdinetan kokatutako zakarrontziak erabiliko

dituzte eta jantziekin edo oinetakoekin zikinkeria ekartzea ekidingo dute.

8. Erabiltzaileek instalazioko altzariak eta tresneria tentuz erabili eta zainduko dituzte.
9. Instalazioaren funtzionamendu egokia edota pertsonen segurtasuna arriskuan jar lezakeen edozein hondatze edo arazoaz jabetuz gero, erabiltzaileek segituan emango diete horren berri instalazioaren arduradunei.

10. Artikulua – Arau osagarriak

Kirol instalazioen kudeaketaz arduratzen den enpresa kontzesionarioak egoki irizten dituen arau osagarriak ezarri ahal izango ditu.

11. Artikulua – Interpretazioa eta arau hutsunea

Araudi hau aplikatzeko orduan sortzen diren zalantzak interpretatzeko gaitasuna izango du kirol instalazioen kudeaketaz arduratzen den enpresa kontzesionarioak.

Araudi honetan jasotzen ez diren kasuei buruz UPV/EHUK hartuko ditu erabakiak.

I.Eranskina

		Irakaskuntza aldia		Udako oporraldia, asteburuak eta jaiegunak	
		UPV/EHU-ko UNIBERTSITATEKO KIDEA	UPV/EHU-ko UNIBERTSITATEKO KIDEA EZ	UPV/EHU-ko UNIBERTSITATEKO KIDEA	UPV/EHU-ko UNIBERTSITATEKO KIDEA EZ
PADELEKO PISTA	08:30 - 16:00	1 € / ordua / pertsona	5 € / ordua / pertsona	1 € / ordua / pertsona	6 € / ordua / pertsona
	16:00 - 22:30		6 € / ordua / pertsona		
TENISEKO PISTA	08:30 - 16:00	1 € / ordua / pertsona	5 € / ordua / pertsona	1 € / ordua / pertsona	6 € / ordua / pertsona
	16:00 - 22:30		6 € / ordua / pertsona		
ERABILERA ANITZEKO PISTA <small>* Gehienez 10 jokalariei kobratuko zaie</small>	08:30 - 16:00	1 € / ordua / pertsona	5 € / ordua / pertsona	1 € / ordua / pertsona	6 € / ordua / pertsona
	16:00 - 22:30		6 € / ordua / pertsona		

Irakaskuntza aldia: irailaren 1etik ekainaren 30era.
 Udako oporraldia: uztailaren 1etik abuztuaren 31ra